



EUROPAKO ELKARTASUN KIDEGOA (EEK)

Europako Batzordeak deialdia ireki du 2019rako proposamenak egiteko (EAC/A05/2018)

[Europako Elkartasun Kidegoa](#) 2 eta 12 hilabete arteko ordaindutako boluntariotza-zerbitzuak, praktikak eta lanpostuak eskaintzen dituen Europar Batzordearen ekimen bat da, 18 eta 30 urte bitarteko gazteen artean elkartasunaren eta borondatezko lankidetzaren rola indartzeko eta gazteentzako lan-aukerak eskaintzeko helburuarekin.

2018-2020rako lankidetzarako kontratu-esparru bat sinatu duen edozein erakunde publikok zein pribatuk finantziazioa eska dezake EEK-ren esparruan. Era berean, Proiektu Solidarioetarako finantziazioa eska dezakete EEK-ren atarian erregistratutako gazte-taldeek.

Proposamenen deialdi honek Kidegoaren honako ekintza hauek barne hartzen ditu:

- Boluntariotza-proiektuak
- Boluntarioen taldeak lehentasun handiko eremuetan
- Praktikak eta enpleguak
- Elkartasun-proiektuak
- Kalitatezko zigilua
- Lankidetzak-akordioak boluntariotza-gaietan (2019rako akordio zehatzak 2018-2020 lankidetzak-esparruko kontratuaren testuinguruan)

Erakunde hautagaiek eta gazte-taldeek beren eskaerak aurkeztu behar dituzte honako epeetan:

Proiektuen modalitatea	Epemuga
Boluntariotza-proiektuak	2019ko otsailaren 5a
	2019ko apirilaren 30a
	2019ko urriaren 1a
Lankidetzak-akordioak boluntariotza-gaietan (2019rako akordio zehatzak 2018-2020 lankidetzak-esparruko kontratuaren testuinguruan)	2019ko apirilaren 20a
Boluntarioen taldeak lehentasun handiko eremuetan	2019ko irailaren 28a

Praktikak eta enpleguak	2019ko otsailaren 5a
	2019ko apirilaren 30a
	2019ko urriaren 1a
Elkartasun-proiektuak	2019ko otsailaren 5a
	2019ko apirilaren 30a
	2019ko urriaren 1a

Pertsona fisikoek ezin dute proiektu-proposamenik aurkeztu banakako mailan EEK-ren esparruan, gutxienez bost gaztek osatutako talde baten izenean Elkartasun Proiektu bat burutzeko finantziazioa eskatzen dutenak salbu.

- ➔ Lehenetsun maila handiko arloetako Boluntarioritza Taldeentzako finantziazio-eskaerak helbide honen bidez bideratu behar dira: [Hezkuntzaren, Ikusentzunezkoen eta Kulturaren Agentzia Betearazlearen sareko formularioak](#).
- ➔ Gainerako ekintzekin lotutako eskaerak [formularioen](#) bidez bidali behar dira, erakunde eskatzailea ezarrita dagoen herrialdeko [Agentzia Nazionalera](#).
- ➔ Kalitatezko zigiluaren eskaerak une oro aurkeztu ahalko dira.

Deialdi honetan aurreikusten den aurrekontu osoa **96.322.671€** da gutxi gorabehera, eta hemen oinarritzen da: [Europako Elkartasun Kidegoaren 2019ko urterako lan-programa](#). Emandako diru-laguntzen zenbatekoa eta proiektuen iraupena aldatu egiten da, proiektu-motaren eta parte hartzen duten bazkide-kopuruaren arabera, besteak beste.

- Proposamenen deialdi honen jarraibide eta baldintza xehatuak hemen azaltzen dira: [2019ko Europako Elkartasun Kidegoaren Gida](#).
- 2019ko Proposamenen Deialdia: — [EAC/A05/2018](#)